

PARTE HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIO-AGIRIA

NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN III. EKINTZA PLANA (2024-2027)

2023ko iraila

Aurkibidea

PLANAREN DATU OROKORRAK	3
AURREKARIAK	3
PARTE HARTZEKO PROZESUAREN HELBURUAK.....	4
LURRALDE EREMUA	5
ZERI BURUZ PARTE HARTZEN DA?.....	5
ERAGILEEN MAPA.....	6
NOLA EGINEN DUGU? PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINUA.....	6
TALDE ERAGILEA. NORK ZAINDUKO DU PROZESUA?	8
PARTE HARTZEKO PROZESUAREN MUGAK.....	9
NAFARROAKO GOBERNUAK PROZESU HONEN GARAPENAREKIN HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK.....	9

PLANAREN DATU OROKORRAK

DEPARTAMENTUA	Lehendakaritza eta Berdintasuna
ZUZENDARITZA NAGUSIA	Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia
NORK BETE DU FITXA HAU?	Herritarren Partaidetzarako eta Boluntariotzarako Atala
PROIEKTU TEKNIKOAREN GAIA ETA IZENA (partaidetza-prozesuarekin lotura duena da)	Gaia: Boluntariotza Proiektuaren izena: Nafarroako Boluntariotzaren III. Plana (2024-2027)
DESKRIBAPEN LABURRA	Boluntariotzaren Ekintza Plan berri bat definitu beharra dago, 2024tik 2027ra bitarteko jarduketa-lerroak ezartzeko. Aurreko boluntariotza-planaren ibilbide-orria 2022tik 2023ra artekoa zen; hortaz, beste plan bat behar da

AURREKARIAK

2014an, Nafarroako gizarte-eragileek parte hartu zuten prozesu baten ondorioz, Boluntariotzaren Estrategia definitu zen. Estrategia horri jarraipena emateko, departamentuen arteko koordinaziorako tresna operatibo bat sortzeko beharra ikusten da.

2015-2019 legegintzaldian, estrategia departamentuetan ezarri zen, banan-banan. Aldi berean, boluntariotza berreskuratzeko bidean aurrera egiteko, Nafarroako Boluntariotzaren I. Ekintza Plana (2018-2020) idatzi eta onetsi zen.

Plan horrek zenbait oinarri ezartzen ditu departamentuen artean beharrezkoa den koordinaziorako. Erronka izan zen boluntariotza sustatzeko plan integral bat bermatzea, Nafarroan gizarte zibil antolatua, parte-hartzailea eta solidarioa garatzen eta sendotzen laguntzeko.

Behin indarraldia bukatuta, Boluntariotzaren II. Plana definitu eta idatzi zen 2022-2023 urteetarako. Plan horrek Nafarroako Gobernuak boluntariotzaren arloan jarduteko proposamena jasotzen du; bideratua dago ekintza boluntarioa ezagutaraztera, aitortzera, indartzera eta bultzatzera, modu irmoan eta progresiboan.

Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren indarraldia 2023ko abenduan amaituko da, eta, beraz, ebaluatu behar dira bai haren ezarpen maila, bai proposatutako adierazleen eta

jomugen aurrerapen maila. Ebaluazio hori lagungarria izanen da boluntariotzaren hurrengo plana hobeki planifikatzeko.

Ebaluazioarekin batera, Nafarroako boluntariotzarako ibilbide orri berria prestatzen hasi nahi da. Hori dela eta, Nafarroako Boluntariotzaren III. Plana definituko dugu.

Horretarako, beharrezkoa da parte-hartze publikoko prozesu bat hastea, nafarrak protagonista izanen dituen eta Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen 2. artikuluan ezarritako printzipio gidarien arabera arautuko dena:

2. artikulua. *Printzipio gidariak.*

- a) *Herritarren parte-hartzea eskubide sozial eta demokratiko bat da. Eta erabaki-hartze prozesuan herritarrek zuzeneko edo zeharkako parte-hartzea izateak lagungarri gertatu behar du herritarren gizarte ongizatea bermatzeko, haien garapen sozialerako mekanismoak sortuz eta baldintza-berdintasuna eskainiz, betiere bilatze aldera guztiek beren nortasuna libreki gara dezatela eta eskubide guztiez goza dezatela.*
- b) *Herritarren parte-hartzeak honako printzipio hauek eduki behar ditu gida moduan: partaidetzazko demokrazia, interes kolektiboa, berdintasun soziala eta generokoa, justizia, osagarritasuna, kultur dibertsitatea, erantzunkidetasuna, baterako kudeaketa, autogestioa, lankidetzeta, solidaritatea, gardentasuna, zintzotasuna, eraginkortasuna, efizientzia, efektibotasuna, unibertsaltasuna, erantzukizuna, betebeharrak soziala, kontu-ematea, kontrol soziala, ideien eztabaida askea, borondatezkotasuna eta ahultasun sozialeko egoeran dauden pertsona guztien eskubideen bermea.*

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN HELBURUAK

- Prozesuaren gardentasun-bideak definitzea.
- Parte har dezaketen alde interesdunak zein diren identifikatzea
- Herritarrek parte hartzeko gune aktibo bat ahalbidetzea
- Mugatzea parte hartzeko aldiaren gehieneko iraupena, aurreikusitako jarduerak eta gutxi gorabeherako egutegia.
- Planaren proposamena aurkeztea alde interesdunei eta herritarrei, oro har, eta kontsulta prozesua erraztea
- Edukiei eta proposamenei buruzko eztabaida publikorako gune bat ahalbidetzea
- Alde interesdunen eta herritarren proposamenak bildu eta aztertzea, hala behar denean Planean sartu ahal izateko.
- Nafarroako Gobernuaren plangintza hobetzea, lan teknikoak alderatuz entitate parte-hartzaileek egindako interes publikoko proposamenekin.

LURRALDE EREMUA

Prozesua Nafarroari atxikitzen zaio.

ZERI BURUZ PARTE HARTZEN DA?

Boluntariotzaren III. Plana (2024-2027) prestatzeari buruz parte hartzen da.

Aurreko bi planen aldean, III. Planaren elementu bereizleetakoa bat da eragileen parte-hartzea hasi zela Plana sustatu duten arduradunek teknikoki egindako zirriborro bat eskuratu zenean. Oraingo honetan, beste urrats bat egin nahi da, eta lankidetzan prestatu plana bera, lehenagoko fase batetik abiatuta. Izan ere, eragileekin landuko dira misioa, ikuspegia, jarduketa-ardatzak eta etorkizuneko plana zehaztuko duten ekintzak berak.

Prestaketarekin batera, orain indarrean dagoen Boluntariotzaren II. Plana ebaluatu behar da, bai ezarpen-mailari dagokionez, bai adierazleen eta proposatutako jomugen aurrerapen-mailari dagokionez. Ebaluazio hori lagungarria izanen da boluntariotzaren hurrengo plana hobeki planifikatzeko.

III. Planaren edukia honako hauek oinarri hartuta egindako diagnostikotik abiatzen da:

- Boluntariotzaren II. Planaren ebaluazioa eta egindako balorazioak
- Boluntariotzaren II. Planaren indarraldian egindako azterlan eta txostenen ekarpenak
- Boluntariotzaren katean inplikaturik dauden eragileen eta inguruaren analisia:
- Emakumeen kontrako indarkeria. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideak Nafarroako Foru Komunitatean
- Sareko lan-saioak boluntariotzan inplikatutako erakunde, boluntario eta eragileekin
- Erakundeei egindako inkesta
- Erakundeekin egin daitezkeen elkarrizketen bidez jasotako ekarpenen hautaketa
- Boluntariotzako Mahai Teknikoarekin egindako kontrastatzea (Nafarroako Gobernuan boluntariotzarekin zerikusia duten departamentuetako teknikariek osatua)
- Departamentuarterko Batzordearekin egindako kontrastatzea (Nafarroako Gobernuan boluntariotzarekin zerikusia duten departamentuetako zuzendariek osatua)

ERAGILEEN MAPA

1. profila	Boluntariotzaren Departamentuarterko Batzordeko zuzendariak
2. profila	Boluntariotzaren Mahai Teknikoko teknikariak
3. profila	Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua
4. profila	Boluntariotzako erakundeen edo boluntariotzako programak dituzten erakundeen ordezkariak
5. profila	Boluntarioak
6. profila	Boluntariotzari buruzko ezagutza edo interesa izan dezaketen eragileak eta erakundeak
7. profila	Herritarrak

NOLA EGINEN DUGU? PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINUA

Parte hartzeko prozesuari buruzko informazio guztia eskura egonen da [Parte hartu, Nafarroa!](#) Plataforman: erreferentzia-esparrua, egutegia, inskripzioak eta parte hartzeko gaitutako kanalak

Plana onartu arteko prozesua fase hauetan banatzen da:

1. FASEA: DISEINUA ETA DOKUMENTUEN ANALISIA 2023/03/15 - 2023/05/31

1.1. FASEA: DISEINUA ETA DOKUMENTUEN ANALISIA

- **Talde eragilea** eratzea eta erreferentzia-esparrua baliozkotzea. **Eragileen mapa** prestatzea.
- Planaren sustatzaileek **erreferentzia-esparrua** ixtea.
- Prozesua gauzatzeko **enpresak** kontratatzea.
- **Parte hartzeko** eta lotutako materialak ekoizteko saioak eta metodologiak **diseinatzea**.
- Proposamena **kontrastatzea Boluntariotzaren Mahai Teknikoarekin (Nafarroako Gobernuko departamentuetako teknikariak koordinatzeko gunea)**.
- **Egutegia** ixtea.

1.2 FASEA. DOKUMENTUEN ANALISIA

- Nafarroako boluntariotzari buruzko II. **azterlana**.
- Boluntariotzari buruzko I. txosten espezifikoa, **generoaren** ikuspegitik.
- Nafarroako boluntariotza **korporatiboari** buruzko I. diagnostikoa.
- Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren **kontuak emateko fitxak**.
- Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren **bitarteko ebaluazioa**.

2. FASEA: ZABALKUNDEA 2023/06/01 - 2023/06/15

- Dagokion **gunea** gaitzea eta aktibatzea [Parte hartu, Nafarroa!](#) plataforman (kanpoko esteka)

- **Prozesua zabaltzea** dauden parte-hartze espazioetan; mezu elektronikoak eta deiak egitea prozesuaren berri emateko.
- “Nafarroa, Orotan Lagun” proiektuaren **komunikazio kanalak** erabiliko dira prozesuaren berri emateko: webgunea, sare sozialak eta aldizkaria.

3. FASEA: PARTE HARTZEA 2023/06/16 - 2023/09/30

3.1 FASEA: PARTE HARTZEA

Aurrez aurreko saioak eta inkestak egitea, horien bidez III. Planaren zirriborroa egiteko

- **Parte hartzeko 1. saioa** (ekaina). Parte-hartzaileak: eragileen mapa osoa (teknikariak, boluntariora-erakundeen arduradunak, boluntarioak eta/edo boluntariora inplikaturako eragileak...)

Parte hartzea errazteko, bi modalitate sortu dira: aurrez aurrekoa eta online. Bi modalitateetan eduki berak landuko dira.

Bileraren helburua da **misioa, ikuspegia eta jarduketa-ardatzak zehaztea**.

- **Inkesta**. Proposatuko da helburuak lehenestea eta jarduketa-ildoak identifikatzea, eta iraileko saioan kontrastatuko da.

- **Parte hartzeko 2. saioa** (iraila). Parte-hartzaileak: 1. saioko parte-hartzaileak eta bat egin nahi dutenak. Irailean ere aurrez aurre nahiz online parte hartzen ahalko da. Bileraren xedeak dira helburuak lehenesteko eta jarduketa-ildoak identifikatzeko ikuspegiak kontrastatzea eta **ardatz bakoitzaren ekintzak zehaztea**.

- 1.2 fasean (“Dokumentuen analisisa”) egindako parte-hartzetik ateratako **datuen balioa nabarmentzea**.

3.2 FASEA. ZIRRIBORROA IDAZTEA

• **Jasotako proposamenak aztertzea** eta Nafarroako Boluntarioraren III. Planaren zirriborroa idaztea.

- Zirriborroaren berri emanen zaie **esparru instituzionalari**:

- Boluntarioraren Mahai Teknikoa

- Boluntarioraren Departamentuarterko Batzordea (kanpoko esteka)

- Nafarroako Boluntarioraren Kontseilua (kanpoko esteka)

4. FASEA: JENDAURREAN JARTZEA 2023/10/01 - 2023/10/31

- **Jendurrean jartzea** Boluntariotzaren III. Planaren zirriborria
- Epe bat irekiko da, eragile eta herritar guztiek **ekarpenak** online egin ditzaten. Horretarako, webgune bat gaituko da Parte hartu, Nafarroa! plataforman (kanpoko esteka)

5. FASEA: AZKEN IDAZKETA ETA ITZULTZEA 2023/11/01 - 2023/11/30

- Jasotako **proposamenak** aztertzea eta Nafarroako Boluntariotzaren III. Plana **idaztea**.
- Boluntariotzaren III. Planaren zirriborria **kontrastatzea**, boluntariotzari lotuta eratutako **eremu instituzional** guztiekin:
 - Boluntariotzaren Mahai Teknikoa
 - Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordea
 - Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua
- Prozesuaren emaitzak **baloratuko** dira eta egin beharreko ekintzen **itzulera** egingen da.

6. FASEA: ONESPENA 2023/12/01 - 2024/01/31

Aurreko faseen ondoren sortzen den Planaren dokumentua Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluari aurkeztuko zaio, oniritzia eman diezaion.

Parte hartzeko organo horrek baliozkotu ondoren, III. Plana Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, onets dezan.

7. FASEA: JARRAIPENA 2024/02/02 - 2027/12/31

Gobernuaren Ekintzak egingen du planaren jarraipena eta exekuzioa.

TALDE ERAGILEA. NORK ZAINDUKO DU PROZESUA?

Talde eragile bat sortzeak partaidetza-prozesuaren diseinu eta exekuzio ona zaintzen lagunduko du.

Unitate sustatzailea	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua Herritarren Partaidetzarako eta Boluntariotzarako Atala Nasertic (“Nafarroa, orotan lagun” plataformaz arduratzen den enpresa)
Enpresa ebaluatzailea eta estrategikoa	<ul style="list-style-type: none"> Polymathía
Enpresa dinamizatzailea	<ul style="list-style-type: none"> EDE fundazioa
Funtsezko beste eragile batzuk	<ul style="list-style-type: none"> Boluntariotzako Mahai Teknikoa, boluntariotzaren bat (soziala, ingurumenekoa, kulturala, kirolekoa, gazteena eta abar) garatzen duten Nafarroako Gobernuko departamentuetako teknikariak biltzen dituena. Boluntariotzaren Departamentuarterko Batzordea: boluntariotzaren arloan, Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuen artean koordinazio teknikoa egiteko organoa da, eta Nafarroako Gobernuko departamentuetako zuzendariak biltzen ditu. Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua: parte-hartzeko organoa da, aholku emailea, boluntariotzaren inplikaturako gizarte eragileak elkartzeko eta aholkularitza eta kontsulta egiteko. Besteak beste, haren funtzioa da “boluntariotza sustatzeko neurrien inguruko proposamenak aztertzea eta aurkeztea”.

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN MUGAK

Aurrekontua dela-eta, denboragatik, arrazoi politikoengatik eta abarregatik partaidetza-prozesuan eztabaidatuko ez diren alderdiak islatzen dira. Alderdi hau funtsezkoa da eztabaidari buruzko kanpo-itxaropenak zuzenak izan daitezen, eta parte hartzeko prozesuaren errealitatera eta irismenera egokituak.

Legezko mugak	Ezin dira sartu legez ezarritako eskumenetatik kanpo gelditzen diren ekintzak.
Aurrekontu-mugak	Gaitutako boluntariotzaren partidari esleitutako aurrekontuaren araberrakoa izanen dira aurrekontu-mugak


NAFARROAKO GOBERNUAK PROZESU HONEN GARAPENAREKIN HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK

Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako

Zuzendaritza Nagusiak konpromiso hauek hartu ditu prozesu hau martxan jartzean:

- Baliabide teknikoak ematea proposatutako informazio-, kontsulta- eta partaidetza-jarduerak antolatzeko.
- Parte hartzeko prozesuan izan daitezkeen informazio eskariei erantzutea.
- Bileretako aktak idatzi eta jendaurrean jartzea.
- Aurkezten diren proposamenak, alegazioak eta iradokizunak aztertzea.
- Alegazioren bat aurkeztu duen erakunde edo pertsona orori adieraztea zer iritzia duen Administrazioak alegazio horren gainean.
- Parte hartzeko prozesuaren amaierako txostena prestatzea; txosten hori behar den administrazio-espedienteari erantsiko zaio.
- Planaren jarraipena egiteko, parte-hartze teknikorako eta herritarrek parte hartzeko sistema aurreikustea.
- Prozesuaren gardentasuna sustatzea prozesuan parte hartzen ari direnekin eta, oro har, gizartearekin, [Parte hartu, Nafarroa!](#) plataformaren bidez.

LAN EGUTEGIA



Irudia behar bezala ikusi ahal izateko, klik egin [esteka honetan](#) (kanpoko esteka)